



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	HD GUNEA						2009 - 2010
GAIA	ARKEOLOGIA TAILER DIGITALA					DATA	2009-11-07
MAILA	DBH 1	X	DBH 2	X	DBH 3	DBH 4	

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK
	1. Arkeologia historia-ondarea berreskuratu, zaindu eta interpretatzeko gaia bezala ulertu. Ondarea bera, informazio, garapen eta gozamen iturri gisa ulertuz, bai norbanakoarentzako zein talderako.
	2. Metodologia zientifikoa Gizarte Zientzietan ezinbesteko metodologiatzat hartu eta balioetsi.
	3. Giza garapenaren urrats esanguratsuak ezagutu, bere ildo logiko-ebolutiboa azpimarratuz.
	4. Kausak eta ondoriak identifikatu garapen historikoa aztertzerakoan.
	5. Ikerketa eta sakontze proiektu errazak egin Gizarte Zientzien ikuspegi holistikoa kontuan izanik, IKTak erabiliz; komunikazio txostenetan ikusmen itxura zainduz: testu idatzi zuzenak, testu grafikoak egokiak.
	6. Etabaidatan parte hartu, besteen ideiak eta ekarpenak balioetsiz eta errespetatuz eta ekarpen propioak eginez, elkarrizketa bizitzaren arruntaren.
	7. Lan-taldean parte hartzea jarrera kolaboratzailea erakutsiz.
	8. Norik bere sorkuntzak, burututako jarduerak eta lortutako ikaskuntzak kritikoki ebaluatzea.
	9. Testuak era autonomo eta ulerkorrean irakurtzea, testuotatik informazio zehatzak eta orokorrak atereaz.
	10. Koherentziaz eta zehaztasunez espresatzea, testu zientifikoen ezaugarriak aplikatuz
	11. Ikasleen adierazpen maila aberastu eta hiztegia zabaldu.
	12. Dokumentu grafikoaren irakurketa-gaitasuna sakondu, bere garai historikoa, helburua eta burutzeko teknikak ezagutu eta baloratu

2 EDUKIEN DENBORALIZAZIOA					
Ord	1. ebaluazioa	Ord	2. ebaluazioa	Ord	3. ebaluazioa
24	1. Gizarte Zientzietako ikerketa-prozesuaren faseak, arkeologiaren ildotik: <ul style="list-style-type: none"> ➤ Landa-lana ➤ Laborategi-lana ➤ Lan-metodologia ➤ Datazio-sistemak 2. Arkeologiaren gaiaren helburu praktikoak 3. Denboraren historia-ardatza. <ul style="list-style-type: none"> • Era geologikoak • Arlo historikoak • Glaziazioak 	22	4. Giza eboluzioa: <ul style="list-style-type: none"> a. Eboluzioa b. Hominizazioa prozesua c. Klima eta eboluzioa d. Hominidoen bilakaera kronologikoa: <ul style="list-style-type: none"> • Australopithecus • Paranthropus • Homo espeziea 	22	5. Paleolitoa <ul style="list-style-type: none"> a. Aldiak eta dagozkien kulturak b. Labar artea paleolito garaian 6. Mesolitoa 7. Neolitoa <ul style="list-style-type: none"> a. Neolito Iraultza b. Hedapen teoriak eta erritmoak c. Labar artea postpaleolitikoa d. Megalitismoa 8. Metal Aroa <ul style="list-style-type: none"> a. Aldiak eta dagozkien kulturak b. Giza-bizimodua 9. Euskal Herriko aztarnategia arkeologikoak <ul style="list-style-type: none"> a. Kokapena b. Izaera historikoa

Prozedurak eta jarrerak ikasturte osoan zehar landuko dira eta, beraz, ez dira sartzen ebaluazio jakin batean bereziki.



PROZEDURAK

1. Arazoak eta hipotesiak formulatzea:

- Egoera ezezagunen aurrean hipotesiak egitea.
- Historiaren une garrantzitsuetako aspektu adierazkorrenak identifikatzea
- Orientazio espazialerako teknikak erabiltzea eta adieraztea

2. Informazioa bilatzea eta tratatzea:

- Iturri anitzak erabiliz informazioa lortzea.
- Informazio iturriak analizatu, alderatu eta ikuspegi kritikoz ulertu
- Informazioa ordenatzea eta egituratzea (Kontzeptu mapak).
- Landa-koadernoak egitea.
- Zereginak egituratzea, proiektuak garatzea eta arakatzeko prozedurak aplikatzea.
- Mapa eta planoak interpretatzea, euren betebeharrerako informazio erabilgarriak lortuz
- Denbora-kategoriak identifikatu eta erabili.
- Dokumentu grafikoak irakurtzea eta euren ezaugarriak ateratzea.
- IKTak bitartekari direlarik informazio egituratua eta egokia eskuratzea. (museoak, aztanategien web guneak...)

3. Azalpen prozedurak:

- Taulak, kontzeptu-mapak, ardatzak eta izaera historikoa duten fenomeno desberdinak abstraktuki adierazteko burutzea.
- Denboraren ardatzean oinarrituta une garrantzitsuak adieraztea
- Aro,une,giza-talde, kulturen ezaugarriak sintetizatzea
- Informazio-iturriak egoki aipatzea
- Historiaurreko artearen elementuak (Koloreak, arte mota,...) identifikatzea eta definitzea.
- Giza-aztarnak datazioaren arabera sailkapenak erabiltzea
- Arkeologiaren lan tresnak eta bakoitzaren erabilera ezagutu.
- Historiaren garapen une garrantzitsuetako Kausa-efektu erlazioak identifikatzea.

4. Komunikazioa:

- Lan monografikoak egitea (teknologia berrietan oinarrituz, betebeharrak identifikatuz eta testu mota anitzak
- Testuak laburtu, sintetizatu eta eskemak egin.
- Foro eta eztabaideetan parte hartu.
- Ikaslearen inguru hurbileko aztarnategien txostenak egitea (taldeari alderdi goraiagarriak azpimarratuz.)

JARRERAK

1. Ezagutzarekiko jarrerak eta baloreak:

- Lanean zorrotza izatea eta bere gaitasuna hobetzeko prest egotea: hobetzeko grina.
- Ikaskuntzan zehar egindako lana baloratu eta errespetatzea, eta teleheziketako plataforman eginiko eta aztertutako testuak eta norberak edo taldean sortutakoak baloratzea.
- Interpretazio historiko eta geografiko sinplistikiko eta metodo zientifikoaren ikuspegitik zorrotzak ez diren interpretazioekiko jarrera kritikoa azaltzea.
- Autoebaluazioa, autokritika eta besteen ebaluazioa norbere prestakuntzan aurrerapausu bat emateko bide gisa ulertzea.
- Ikasleak lan intelektualerako ohiturak adierazteko interesa erakustea.



2. Tolerantzia, enpatia eta elkartasun-jarrerak eta baloreak:

- Hizkuntza errespetuz erabiltzearen aldeko jarrera erakustea, bereziki estereotipoak, esamoldeak, adierazpen diskriminatzaileak, etab. saihestea.
- Idazkiak egiterakoan testuaren xedea kontuan hartzea.
- Ondare kulturala, inguru hurbileko ondarean oinarrituta, errespetatzeko ohiturak erakustea, .
- Elkarrizketa, eztabaida eta iritzien pluraltasuna, komunikatzeko, gizarteko nahiz espazioko arazoak konpontzeko eta banakakoaren nahiz taldearen prestakuntza aberasteko eta elkartrukaketarako tresna gisa baloratzea.
- Kultur desberdinen aurrean etnozentrismorik gabeko balioespenak egitea.
- Gizkiaren historia norberarenarekin integratzea.

3. Partaidetza-jarrerak eta baloreak:

- Taldea ideia pertsonalak adierazi eta errespetatzen diren eremu gisa hartzea.
- Taldean lan egiteko eta garatzen diren jardueretan rol desberdinak bere gain hartzeko prest egotea.
- Ondare kulturalaren babeserako eta elkartasunezko ekintza edo kanpainetan laguntzea.
- Lanean eta kideekiko harremanetan jarrera harkorra eta elkarrizketako gogoazaltzea.
- Kideekiko portaera solidarioak eta ez-diskriminatzaileak eskuratzea.
- Azalpen akritiko eta dogmatikoak gaitzestea eta gainditzea.
- Zeregin eta betebeharrak desberdinetan taldeko gainerako kideekiko lankidetzazko jarrera izatea eta talde-lana baloratzea.
- Banakako lana nahiz lan kooperatiboa antolatzeko eta jarduera desberdinetan asmo konstruktiboez parte hartzeko ohiturak garatzea.
- Elkarrizketa, eztabaida eta iritzien pluraltasuna, komunikatzeko, gizarteko nahiz espazioko arazoak konpontzeko eta banakakoaren nahiz taldearen prestakuntza aberasteko eta elkartrukaketarako tresna gisa baloratzea.

3

METODOLOGIA

Ikasleak plataforman ematen diren jarduerak burutu behar ditu, auto-zuzenketako jardueretan ebazpen zuzena aurkitu arte.

Zenbait kasutan ebazpena koaderno digitalean idatziko ditu.

Talde jardueretan parte hartuko du

4

BALIABIDEAK

Moodle teleprestakuntza-plataformak ematen dituenak. Komunikazioa gauzatzeko tresnak, koaderno digitala...

Eduki digitalak Eibarko HD gunean egindako curriculum materialak.

Internetek emandako On-line baliabideak



5	EBALUAZIOA: TRESNAK, EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK						
<p>1.- Gizarte Zientzietako teknika eta metodo ezaugarriak ikerketa-proiektu laburrei aplikatzea, banaka eta taldean antolatzeke eta emaitzak jakinarazteko estrategiak garatuz, lengoia eta euskarri desberdinak erabiltzeko gai dela frogatuz, eta norberak koherentzia logikoa duten ondorioak ateraz. Nagusiki Gizarte Zientzietako eta beste zientzia osagarri batzuetako metodo eta prozedura egokiak eta bereziak erabiliz burutzeko ikasleek eskuratu duten gaitasuna ebaluatzen saiatzen da; gainera, bere ondorioak jakinarazterakoan erabiltzen dituen lengoaiari eta prozedurei dagokienez duen gaitasuna ebaluatu nahi da, jakintzagaian hiztegi espezifikoa menperatzen duela eta lengoia, baliabide eta euskarri desberdinak (idatzitako txostena, ikus-entzunezko komunikabideak, informatikoak, etab.) erabiltzeko gai dela frogatuz.</p>							
<p>2.- Iturri desberdinak erabiltzea (lehenengo eta bigarren mailakoak, batez ere IKTen bidez lor daitezkeenak), eta fenomeno desberdinak ulertzeko garrantzitsua den informazioa ateratzea.</p> <p>Ikasleek datuen eta informazio-iturrien erabilpenean eta tratamenduan lortu duten trebetasuna nahiz iturriak analizatzerakoan duten gaitasun kritikoa (fidagarritasuna, objektibotasun-subjektibotasun maila, garrantzia, etab.) eta ezagutza objektiboaren eta zientifikoaren erlatibotasuna ulertu ote duten egiaztatu nahi da nagusiki. Era berean, informazio-iturri desberdinen nahiz erabilitako lengoaiaren (idatzia bere forma desberdinetan, ikonografikoa, etab. eta bereziki gizarte-komunikabideei dagozkien) tratamenduan lortu duen trebetasuna aztertu nahi da.</p>							
<p>3.- Historiaurrean zehar eman den eboluzioaren gaineko proiektuak ebaluatzea, aurrekoengandik jaso dugun herentzia kritikoki baloratuz. Aintzakotzat hartuko dira jaso dugun ondare kulturaletik lortzen duten giza-espezia ulertzeko gaitasuna, honen kultur garapena eta inguruneari bizimodua egokitzeko ahalmena, Arkeologiak horretarako eskaintzen duen ikuspegi holistikoa kontuan hartu, erlazioak eraiki eta ondorioak aurreikusteko joera.</p> <p>Irizpide honek gizakiaren, bizimodua, kultur-ohiturak eta errituak, eta ekoizpena osotasunez azaltzeko ahalmena; alegia, giza-historiaren alderdiak eta baldintza ekologiko eta sozio-ekonomikoak integratzekoa.</p>							
<p>4. - Lanen aurrean erantzukizunaz jokatu eta proposatzen diren epeak errespetatzea. Taldeko lanen plangintzan eta burutzapenean parte hartzea, ekarpen pertsonalak kritikoki baina era konstruktiboan eginez, gainerako kideen iritzia, iradokizunak eta ekarpenak errespetatuz eta elkarrizketa nahiz ezadostasuna, heldutasun pertsonalera eramaten duten aurrerapausoak, aberastasuna eta aniztasuna lortzeko bide gisa baloratuz.</p> <p>Irizpide honen bitartez, elkarlan-zereginen antolamenduan ikasleek egin dituzten aurrerapenei, beren funtzionamenduan duten zereginari eta lan desberdinen garapenean (ikerketak, eztabaidak, foroak, etab.) egiten dituzten ekarpenei buruzko informazioa bildu nahi da. Gainera, jardura desberdinetan parte hartzeak eta rol desberdinak jokatzean (ikertzailea, idazkaria, bozeramailea, moderatzailea, behatzaile neutrala, etab.) gizartearen eta gizakiaren eboluzioa ikasleak ulertzen eta analizatzen ote dituen eta, jarrera kritikoarekin baina errespetuz eta demokratikoki hauek defendatu eta birsortzeko duen gaitasuna adierazten duen informazio baliagarria ematen digu. Hau ez da esparru akademikora mugatzen den informazio gisa ikusi behar (hipotesiak formulatzea, garapen, ondorio eta sintesi faseak, bide berriak irekitzea, etab.). Hemen garrantzi berezia dute baita nerabearen nortasuna osatzerakoan garrantzitsuak eta aberasgarriak diren alderdi afektiboak ere.</p>							
<p>5.- Arkeologiaren lan tresnak, birtualki, jardura egokietan erabiltzea, material desberdinak datatzeko prozedura egokiak proposatzea, gertaeretan kausa-efektu erlazioak berezitu eta norberak egindako lanetan islatzea. Ondare kulturala sailkatu, gizarte jakin baten ekoizpen gisa ulertu eta ardatz kronologikoan egokitasunez adierazi. Une historikoak bere lekuan txertatzea izango lirateke irizpide honen oinarria, beti ere jakinda datuetan oinarritzea ezinbestekoa dela eta hau euren lanetan erakutsi behar dutela lan-hipotesi arrazionalak eginez.</p>							
<p>6- Inguru nahiko hurbileko ondare arkeologikoa ezagutu, adierazpen desberdinak tipologiaren arabera sailkatzea eta haien artapena baloratzea. Irizpide honen asmoa, bere inguruko (herriko, eskualdeko edo erregioko) ondare arkeologikoa artatzeko moduko gisa zein neurritan baloratzen dituen egiaztatzea da.</p>							
Kalifikazioen balio portzentuala	Kontzeptuak	%20	Prozedurak	%40	Jarrerak	%40	
<p>6</p> <p>BERRESKURAPEN SISTEMA</p> <p>Ebaluazio positiborik lortu ez duen ikasleari indartze-jarduerak emango zaizkio.</p>							